

ZIRKULAR ZBK. 2375

=====

GAIA: Ordainketa-baliabideen mugimenduen deklarazioa

[Sinadura]

ETD/1217/2022 Aginduak, azaroaren 29koak, zeinetan arautzen baitiren ordainketa-baliabideen mugimenduen deklarazioak kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren arloan, garatu egin du apirilaren 28ko kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketa ekiditeko 10/2010 Legearen 34. Artikuluan zehaztutakoa, zeinetan zehazten baiten funtsen jatorria, helburua eta ukaitea deklaratzeko betebeharra, ordainketa-baliabideen mugimenduak egiten direnean lurralde nazionaletik sartu edo irteterakoan, edo lurralde nazionalaren baitako mugimenduetan, kopuru jakin batzuetarako.

Agindua, joan den urteko abenduaren 28an indarrean jarri zena, eta aurretiaz gai honi zegokionez indarrean zegoena ordezkatzeko duena, EB-ko 2018/1672 Erregelamenduaren ondorioa da. Azken honek beharrezko egiten du Espainiako arau-esparrua moldatzea europar araudiak eskatzen duen informazio-eskaera berrietara.

Helburu hauetarako, Aginduak zehazten du zer eredu, irizpide eta deklaratzeko modu aplikatuko zaizkion norberaren edo hirugarrenen kontura ordainketa-baliabideen mugimenduak egiten dituzten pertsonen, zehazki kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketa ekiditeko 10/2010 Legearen 34. Artikuluan zehaztutako mugimendu motei dagokienez:

1. Europar Batasunekoak ez diren estatuetatik edo haietara egindako mugimenduak:
 - a) Lurralde nazionalen egiten diren ordainketa-baliabideen sarrera- edo irteera-mugimenduak, pertsona fisiko batek eramanak, Europar Batasunekoak ez diren estatuetatik edo haietara, 10/2010 Legearen, apirilaren 28koa, 34.1 artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera.
 - b) Lurralde nazionalen egiten diren ordainketa-baliabideen sarrera- edo irteera-mugimenduak, bidaiderik gabekoak eta Europar Batasunekoak ez diren estatuetatik edo haietara, 10/2010 Legearen, apirilaren 28koa, 34.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Europar Batasuneko Kide diren estatuetatik edo haietara egindako mugimenduak:
 - a) Lurralde nazionalen egiten diren ordainketa-baliabideen sarrera- edo irteera-mugimenduak, pertsona fisiko batek eramanak, Europar Batasuneko Kide diren estatuetatik edo haietara, 10/2010 Legearen, apirilaren 28koa, 34.1 artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera.
 - b) Lurralde nazionalen egiten diren ordainketa-baliabideen sarrera- edo irteera-mugimenduak, bidaiderik gabekoak eta Europar Batasuneko Kide diren estatuetatik edo haietara, 10/2010 Legearen, apirilaren 28koa, 34.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
3. Lurralde nazionalen zehar egindako ordainketa-baliabideen mugimenduak, bidaidearekin edo hura gabe, 10/2010 Legearen, apirilaren 28koa, 34.1 artikuluko b) letran ezarritakoaren arabera.

Helburu hauetarako, mugimendutzat hartuko da pertsona eramailearen bizilekutik kanpo

egiaztatu daiteken ordainketa-baliabideen edozein leku- edo posizio-aldaketa.

Bereziki aipagarria da S-2 ereduaren sorrera, zeina erabiliko den ordainketa-baliabideen mugimenduak deklaratzeko, bidaiderik gabekoak direnean eta lurralde nazionalen sartu edo irtetean, Europar Batasuneko Kide den estatu batetik edo hartara; baita lurralde nazionalaren baitako bidaiderik gabeko mugimenduetan ere.

Ordainketa-baliabideen mugimenduen deklaraziorako S-1 eredia mantentzen da, mugimenduok pertsona fisiko batek eramanda egin direnean; dela lurralde nazionalaren baitan edo lurralde nazionalen sartu edo irtetean, Europar Batasuneko Kide den estatu batetik edo hartara.

Bestalde, deklarazio-betebeharra duten bestelako mugimendu guztiek, zehazki Europar Batasunekoak ez diren estatuetatik edo haietara egindako mugimenduek, Komisioaren 2021/776 (EB) Exekuzio-erregelamenduak eta 2018/1672 (EB) Erregelamenduan zehazten diren informazio-truke eraginkorrerako arau teknikoek baimendutako ereduak bete eta aurkezteko betebeharra eragingo dute.

Ministro-aginduak eredu horiei E-1 (bidaidedun mugimenduentzako) edo E-2 (bidaiderik gabekoentzako) izendapena ematen die.

Aginduak xedatzen du S-1 eredia kreditu-entitateen aurrean aurkeztu ahalko dela lurralde nazionaletik irteera-mugimendu bat egiteko, aipatutako mugimenduak, hein batean gutxienez, deklarazitailearen titularitateko kontu batean badu jatorria; baita lurralde nazionalaren baitako mugimenduetarako, ordainketa-baliabideek, gutxienez partzialki, entitatearen bezeroaren titularitateko kontu batean kargu edo abonurik jasotzen badute. Helburu horretarako, entitateek S-1 deklarazio-ereduak jaso ahal izango dituzte, haien bezeroek betetakoak badira eta bere osotasunean bete direla egiaztatu ondoren; jarrian eginbidetu eta Kapitalen Zuriketa eta Arau-hauste Monetarioak Ekiditeko Komisioaren Zerbitzu Exekutiboari jakinaraziko diote.

Horrez gain, banku-entitateek:

- Hilero jakinaraziko diote Kapitalen Zuriketa eta Arau-hauste Monetarioak Ekiditeko Komisioaren Zerbitzu Exekutiboari iragandako hilabeteen egindako edozein operazio, haiek esku-hartu badute eta nahitaezko deklaraziopean dauden ordainketa-baliabideen mugimenduekin zerikusirik badute.
- Ordainketa-baliabideen eramaileak, deklaratzeko betebeharra izan eta ez badu behar bezala eginbidetutako deklarazio bat erakutsi edo aurkezten; betebehar hau duten subjektuek egoera azaldu beharko dute Zerbitzu Exekutiboari egiten dioten komunikazioan.

Aurrez azaldutakoaren arabera, deklaratzeko betebeharra mugimendua egiten duen pertsonari badagokio ere, egokia dirudi bankuek bezeroei betebehar hori gogorarazten jarraitzea, bai eta ez betetzearen ondorioez ere.

Helburu hauetarako, eta orientaziorako, atxikita doa behar bezala eguneratutako Espainiako Bankuen Elkarteko oharra, 1376 zirkularrarekin batera zihoana.

Madrilen, 2023ko urtarrilaren 13an

[Sinadura]

IDAZKARI OROKORRA